



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Kudeaketa, bilketa eta ikuskapenerako ordenantza fiskal orokorraren behin betiko onarpena.

Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskal orokorraren hasierako onespeneraren erabakia jendaurrean jartzeko epea igaro eta erreklamaziorik eta iradokizunik izan ez denez, behin betiko onartu da Udalbatzak 2023ko urriaren 26an egindako osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, eta Ordenantza hori honela geratu da:

Bermeon, 2023ko abenduaren 20an.— Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly

**KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKARITZAKO
ORDENANTZA FISKAL OROKORRA****I. KAPITULUA
OINARRI OROKORRAK****1. artikulua. — Xedea**

Ordenantza hau Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan aurreikusitakoaren babesean eman da, eta udalerri honetako zuzenbide publikoko diru-sarreraren erregimena osatzen duten zerga eta zuzenbide publikoko gainerako sarrera guztiei dagozkien kudeaketako, bilketako eta ikuskaritzako arau orokorrak eta oinarritzko printzipioak jasotzen ditu.

Bertan aurreikusten ez den guztirako, osagarri gisa aplikatuko dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko xedapenak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketaren Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 21eko 125/2019 Foru Dekretua eta hura garatzeko arau-xedapenak, bai eta zergazkoak ez diren zuzenbide publikoko diru-sarrerei buruzko alderdi guztiak ere.

2. artikulua. — Aplikazio-eremua

Ordenantza hau Bermeoko udalerri osoan aplikatuko da, indarrean sartzen denetik indargabetzen edo aldatzen den arte.

3. artikulua. — Zerga-betebeharrak

1. Zerga-harremanetik betebehar materialak eta formalak erator daitezke zergapekoarentzat eta Administrazioarentzat, bai eta zerga-zehapenak ezartzea ere, hori betezen ez bada.

2. Betebehar formalak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 29. artikulua 1. paragrafoan zerrendatutakoak. Betebehar materialtzat jotzen dira zerga-kuota ordaintzea helburu duten betebehar nagusiak eta betebehar osagarriak.

3. Partikularren egintza edo hitzarmenek ezin izango dituzte aldatu tributu-betebeharren elementuak, eta ez dute ondorioz izango Administrazioaren aurrean, horrek dakartzan ondorio juridiko-pribatuei kalterik egin gabe.

4. artikulua. — Berandutze-interesa

1. Berandutze-interesa prestazio osagarria da, eta zergapekoei eta arau-hausleei kasu hauetan eskatuko zaie: batetik, ordainketa bat ez dutenean egiten Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauean ezarritako epearen barruan, ez zegokien itzulketa bat kobratzen dutenean edo zerga arautegian ezarritako gainerako kasuetako bat gertatzen denean.

Zergen arloko berandutze-interesak eskatzeko ez da beharrezkoa Administrazioak, aurretik, agindeirik egitea, ez eta atzerapena zergapekoaren erruz gertatzea ere.

2. Berandutza-interesak ordainketa atzeratzen den aldi osoan sortuko dira eta zerga-kuotaren edo konturako ordainketaren edo bidegabe kobratutako itzulketaren zenbatekoaren gainean kalkulatu dira, edo, bidezkoa denean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 56. artikulua 2. idaz-zatiaren d) letran aipatutako errekaurren eta zehapenen zenbatekoaren gainean.

3. Berandutza-interesa kopurua eska daitekeen aldiaren indarrean dagoen diruaren legezko interesa izango da, %25 gehituta, besterik ezarri ezean.

4. Beteazpen-aldia hasteak berekin ekarriko du berandutze-interesen sortzapena, salbu eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 60. artikulua 3. apartatuaren lehenengo paragrafoan ezarritako epealdia amaitu arteko aldiaren epealdi horretan sartutako zenbatekoengatik.



5. Zerga Administrazioak egindako likidazioetan, zerga bakoitzaren arautegian bidezko aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko ezartzen den epea bukatzen denetik likidazioari buruzko erabakia hartzen den egunera arteko aldiko berandutza-interesak eskatuko dira.

6. Administrazioaren edo epailearen ebazpen baten bidez likidazioa deuseztatu bada eta, ondorioz, likidazio berria egin behar bada, deuseztapenaren arrazoiak ukitzen ez dituen egintzak eta izapideak oso-osoan gordeko dira, baita edukia ere, eta likidazio berriaren zenbatekoaren gaineko berandutza-interesa eskatuko da.

Honelako kasuetan, deuseztatutako likidazioan hasiko zen egun berean hasiko da zenbatzen berandutza-interesa eta likidazio berria egiteko erabakia hartu arte sortuko da. Nolanahi ere, ebazpena betearazteko gehieneko epea amaitutakoan ezin jarraituko izan da konputatzen.

7. Errekurtsoak eta erreklamazioak osorik ezesten badira, ezespen-erabakia eman den egunera arteko berandutza-interesak eskatuko dira.

8. Autolikidazioak zergaren arautegian ezarritako epea amaitutakoan aurkezten badira, ez dira berandutza-interesak eskatuko baldin eta aurretiazko errekerimendurik gabe eta epea amaitu ondorengo sei hiletan ordaindurik aurkezten badira autolikidazioak.

Aitorpen bidez hasitako kudeaketa prozeduran (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 122. artikulua) arteko aldiko berandutza-interesak eskatuko dira. Salbuespen izango dira, dena den, ondorengo sei hiletan aurretiazko errekerimendurik gabe aurkezten diren aitorpenak. Aitorpena zergaren arautegian aurreikusitako epea amaitutakoan aurkezten bada, amaitzen denetik aitorpena aurkeztu arteko aldiko berandutza-interesak eskatuko dira. Salbuespen izango dira, dena den, ondorengo sei hiletan aurretiazko errekerimendurik gabe aurkezten diren aitorpenak.

5. artikulua. — Zergapekoen eskubideak

Honako hauek dira zergapekoen eskubideak, besteak beste:

- a) Zerga-administrazioak bere eskubideak gauzatzeari eta zerga-betebeharrak betetzeari buruz informazioa eta laguntza jasotzeko eskubidea.
- b) Zerga bakoitzaren ondoriozko itzulketak eta bidegabeko sarreraren itzulketak lortzeko eskubidea.
- c) Egintza baten betearazpena eteteko edo zor baten ordainketa geroratu edo zatikatzeke emandako abalen eta bestelako bermeen kostutik itzulita izateko eskubidea, baldin eta egintza edo zor hori, epai edo administrazio-ebazpen irmo bidez, erabat edo partzialki bidegabetzat jotzen bada, eta legezko interesa ordaintzen bada horretarako errekerimendurik egin beharrik gabe, bai eta jarritako errekurtsua edo erreklamazioa partzialki baiesten den kasuetan aurkeztutako bermearen murrizketa proportzionalerako eskubidea ere.
- d) Parte den prozeduren izapidetze-egoera zein den jakiteko eskubidea.
- e) Zerga-administrazioaren zerbitzuan dauden agintari eta langileak nortzuk diren jakiteko eskubidea, horien ardurapean izapidetzen baitira interesdun diren tributu-jarduketa eta -prozedurak.
- f) Berak aurkeztutako adierazpenen ziurtagiria eta kopia eskatzeko eskubidea, baita administrazioan aurkeztutako agirien kopia zigilatua lortzeko eskubidea ere, betiere kopia hori jatorrizkoekin batera aurkezten badute erkatzeke, eta, espedientearen jaso behar ez badira agiri horien jatorrizkoak itzultzeko eskubidea.
- g) Beraiek aurretik aurkeztutako eta Bermeoko Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko eskubidea, betiere zergapekoak agiri horiek aurkeztu zituen eguna eta prozedura adierazten baditu.
- h) Zerga-administrazioak lortutako datuen, txostenen edo aurrekariaren izaera erresebatua izateko eskubidea, lege aurreikusitako baldintzetan. Datu, txosten edo



- aurrekari horiek kudeatzeko ardura duten tributuak edo baliabideak aplikatzeko eta zehapenak ezartzeko baino ezin izango dira erabili, eta ezin izango zaizkie hirugarrenei eman edo jakinarazi, legeetan aurreikusitako egoeretan izan ezik.
- i) Zerga-administrazioaren zerbitzupeko langileek zor zaien errespetuarekin eta begirunearekin tratatzeko eskubidea.
 - j) Bere esku-hartzea eskatzen duten zerga-administrazioaren jarduketak hain neketsua ez den moduan egiteko eskubidea, betiere horrek zerga-betebeharrak betetzea kaltetzen ez badu.
 - k) Alegazioak egiteko eta dokumentuak aurkezteko eskubidea eta organo eskudunek hauek kontuan izango dituzte ebazpen-proposamena idaztean.
 - l) Entzunaldiaren izapidean entzuna izateko eskubidea.
 - m) Aplikatu daitezkeen zerga-onurak edo -arabideak aintzatesteko eskubidea.
 - n) Zerga administrazioaren funtzionamenduari buruzko kexak eta iradokizunak egiteko eskubidea.

6. artikulua. — Zerga-prozeduren faseak

1. Tributuaren arloko jarduketak eta prozedurak ofizioz edo zergapekoak eskatuta hasi ahal izango dira, autolikidazioaren, aitorpenaren, komunikazioaren, eskaeraren edo zerga-araudian aurreikusitako beste edozein bitartekoren bidez.
2. Tributuaren arloko jarduerak eta prozedurak garatzean, administrazioak une oro erraztuko die zergapekoari beren eskubideak egikaritzea eta betebeharrak betetzea.
3. Froga egiteko, ez da beharrezkoa izango aldi zehatz bat zabaltzea, ezta interesdunei aldez aurretik jarduketaren berri ematea ere.
4. Administrazioak tributuak aplikatzeko prozeduretan egiten dituen jarduketak komunikazio eta errekerimenduetan, interesdunen egitatea edo adierazpena agerrarazteko eginbidean, txostenetan eta prozedura bakoitzaren berariazko araudian aurreikusitako beste dokumentu batzuetan dokumentatuko dira.
5. Zerga-prozedurei amaiera emango diete ebazpenak, atzera egiteak, eskaeraren oinarri den eskubideari uko egiteak, gerora sortutako arrazoiengatik prozedura horiek jarraitzeko ezintasun materialak, iraungitzeak, errekerimenduaren xede izan den betebeharra betetzeak edo ordenamendu juridikoan aurreikusitako beste edozein arrazoik.
6. Udal honek, bere ahalmen arauemakalea erabiliz, kudeaketa-prozeduretan ezarritako epeen aldaketak udalaren Osoko Bilkurak onartuko ditu.

7. artikulua. — Zerga-kitapenak

1. Tributu-likidazioa administrazio-organoren eskudunak beharrezko kuantifikazio-eragiketarako egiteko eta zerga-araudiaren arabera itzuli edo konpentsatu beharreko tributu-zorren edo, hala badagokio, zenbatekoaren kopurua zehazteko egiten duen ebazpen-egintza da.

Administrazioa ez dago behartuta likidazioak zergapekoek autolikidazioetan, aitorpenetan, komunikazioetan, eskaeretan edo beste edozein dokumentutan jasotako datuetara egokitzea.
2. Zerga-likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izango dira. Izaera hau izango dute:
 - a) Ikuskapen-prozeduran egindakoak, zerga-betebeharraren elementu guztiak egiaztatu edo ikertu ondoren, betebeharrak berari buruzko likidazio-proposamen desberdinak egin behar direnean izan ezik.
 - b) Zerga-araudiak hala aitortzen dien gainerakoak.Gainerako guztietan kitapenak behin-behinekoak izango dira.
3. Kitapenak jakinaraziko dira honakoak adierazita:
 - a) Zergapekoaren identifikazioa.
 - b) Zerga-zorren zenbatekoa zehazten duten elementuak.



- c) Zergapekoak emandako datuekin edo zergapekoak egindako arau-aplikazio edo -interpretazioarekin bat ez datozenean, zergapekoen arrazoiak, horiek eragin dituzten egitateak eta funtsezko elementuak adierazita, baita zuzenbideko oinarriak ere.
- d) Inpugnatzeko zein bide erabil daitezkeen, zein organori aurkeztu behar zaizkion eta zein epetan.
- e) Ordaintzeko lekua, epea eta modua.
- f) Behin- behineko edo behin betiko izaera duen.

8. artikulua. — Ebazteko beharrizana eta ebazteko epeak

1. Zerga administrazioa behartuta dago zergak aplikatzeko prozeduretan sortzen diren gai guztiak berariaz ebaztera, baita ebazpen hori jakinaraztera ere.

Ez da betebeharrak hori egongo honela amaitzen diren prozeduretan:

- a) Atzera eginda
- b) Uko eginda
- c) Objektua bat-batean galduta
- d) Iraungita
- e) eta jakinarazi bakarrik egin behar diren eskubideez baliatzeari buruzkoak.

2. Ebazpena jakinarazteko gehieneko epea dagokion prozedura arautzen duen araudian ezarritakoa izango da. Prozedura arautzen duen araudiak gehieneko eperik zehazten ez duenean, epe hori sei hilabetekoa izango da. Epe hau zenbatuko da:

- a) Ofizios hasitako prozeduretan, hasteko ebazpena jakinarazten denetik.
- b) Interesatuak hasten dituen prozeduretan, izapidetzerako eskumena duen administrazioaren erregistroan agiriari sarrera eman zaion datatik aurrera.

Premiamendu-prozedura paragrafo honetan xedatutakotik kanpo geratzen da, eta haren jarduketak preskripzio-epea amaitu arte luzatu ahal izango dira.

9. artikulua. — Berariazko ebazpenik ezaren ondorioak

1. Prozeduren gehieneko epearen barruan jakinarazteko betebeharrak betetzat jotzeko, nahikoa izango da ebazpenaren testu osoa jasotzen duen jakinarazpen-saiakera bat egin dela egiaztatzea.

Bitarteko elektronikoen bidez egindako jakinarazpenak borondatez jasotzeko betebeharrak edo aukera eskatzen denean, prozeduren gehieneko epearen barruan jakinarazteko betebeharrak betetzat joko da jakinarazpena interesdunaren esku jartzen denean, jakinarazpena egindakotzat jotzen den unea edozein dela ere.

Erregelamenduz zehazten diren etete-aldi justifikatuak eta zerga administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik prozeduran izandako atzerapenak ez dira sartuko ebazteko epea zenbatzean.

2. Alderdi batek eskatuta hasitako prozeduretan, gehieneko epea berariazko ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, araudi erregulatzaileak ezarritako ondorioak izango ditu. Ondorio horietarako, tributuak aplikatzeko edozein prozeduratan berariaz arautu beharko da dagokion ustezko egintzen araubidea.

Arauketa hori izan ezean, interesdunek baietsitzat jo ahal izango dituzte beren eskaerak administrazio-isiltasunaren bidez, eskaera-eskubide konstituzionala baliatzeko prozeduretan eta egintzak eta xedapenak aurkaratzeko prozeduretan aurkeztutakoak izan ezik, horietan isiltasunak ezesteko eragina izango baitu.

Zergapekoari egotz dakioken arrazoiaren batengatik prozedura geldiarazten denean, administrazioak ohartaraziko dio prozedura iraungitzat jo dezakeela, hiru hilabete igaro ondoren.

3. Administrazioaren kabuz hasitako prozeduretan, ezarritako gehieneko epea berariazko ebazpenik jakinarazi gabe igarotzeak tributuak aplikatzeko prozedura bakoitza



arautzen duen araudian aurreikusitako ondorioak izango ditu. Berariazko erregulaziorik ezean, honako ondorio hauek izango ditu:

- a) Eskubideak edo bestelako egoera juridiko indibidualizatuak aitortzea edo, hala badagokio, eratzea ekar dezaketen prozedurak badira: Administrazio-isiltasunez, zergapekoek ezetsitzat jo ahal izango dituzte prozedurak ekar ditzakeen aldeko ondorioak.
- b) Ondorio kaltegarriak edo kargak eragin ditzaketen prozeduretan: Prozedura iraungi egingo da.

10. artikulua. — Zerga-arloko jakinarazpenak

1. Administrazio-arauek arautuko dituzte, artikulua honetan eta hurrengoan jasotako berezitasunekin.
2. Jakinarazpena honako huetan egingo dira:
 - a) Interesatuak eskatuta hasi diren prozeduretan: Jakinarazpena egiteko lekua izango da zergapekoak edo haren ordezkariak ondorio horietarako adierazita-koa, edo, halakorik ezean, baten edo bestearen zerga-egoitza.
 - b) Ofizioz hasitako prozeduretan: Zergapekoaren edo haren ordezkariaren zerga-egoitza egin ahal izango da, lantokian, jarduera ekonomikoa egiten den le-kuan edo horretarako egokia den beste edozein lekutan.
3. Jakinarazpena zergapekoak edo haren ordezkariak horretarako adierazitako le-kuan egiten denean, edo bataren edo bestearen zerga-egoitza egiten denean, entre-gatzeko unean bertan ez badago, toki edo egoitza horretan dagoen edozein pertsonak hartu ahal izango du jakinarazpena, bata jakinarazpenaren helbidea dagoen auzotarren edo jabeen erkidegoko langileek ere.

Obligaziodunak edo haren ordezkariak jakinarazpena atzera botatzen badu, jakina-razpena egindakotzat joko da.

11. artikulua. — Jakinarazpen elektronikoak

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera, administrazio-komunikazioak eta -jakin-a-razpenak bitarteko elektronikoen bidez jasotzera behartuta daude honako pertsona eta erakunde hauek:
 - a) Sozietate anonimoaren eta erantzukizun mugatuko sozietatearen forma juridikoa duten erakundeak.
 - b) Aldi baterako enpresa-elkarteak.
 - c) Ekonomia-intereseko taldeak, Europako ekonomia-intereseko taldeak, pen-tsio-funtsak, arrisku-kapitaleko funtsak, funtsak eta inbertsioak, aktiboen titula-zio-funtsak, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsak eta hipoteka-titulazioko funtsak edo inbertsioak bermatzeko funtsak.
 - d) Administrazio publikoak
2. Lehen definitutako pertsona juridikoak gaitutako helbide elektronikoaren siste-matik kanpo utzi ahal izango dira, beren eremuan sartzeari eragin zuten inguruabarrak gertatzen ez direnean, eta berariaz hala eskatzen badute.

Aurreko atalen arabera jakinarazpen elektronikoak jasotzera behartuta ez dauden interesdunek edozein unetan erabaki eta jakinarazi ahal izango diote Bermeoko Udalari ondorengo jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egitea edo ez egitea. Horreta-rako, beharrezkoa izango da Bermeoko Udalak hartutako helbide elektroniko batean edo antzeko sistema batean alta emanda daudela adieraztea, eta eskaera berean jakinaraz-pen elektronikoa egiteko beharrezkoak diren datuak jakinaraztea.

3. Jakinarazpen elektronikoa jaso ahal izango dute: oro har, zuzenbide publikoko tributuak eta diru-sarrerak aplikatzeko prozeduren ondoriozko jarduketan jakinarazpe-nak eta komunikazioak egin behar dituzten pertsonak, eta, bereziki, Bermeoko Udaleko zerga bilketako organoak kudeatutako diru-sarreraren nahitaezko bilketaren ondoriozkoak.



4. 39/2015 Legearen 43.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, jakinarazpena eskura jarri eta 10 egun naturaleko epean jakinarazpena onartu ez badu, jakinarazpena atzera bota dela ulertuko da, administrazio-prozedurari buruzko legerian aurreikusitako ondorioekin.

5. Behartutako subjektuentzako jakinarazpen elektronikoak egiteko, gaitutako helbide elektronikoa edo Bermeoko Udalak aurretik hartutako antzeko sistema erabiliko da.

12.artikulua. Agerraldi bidezko jakinarazpena

1. Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ezin bazaio jakinarazpena egin zergapekoari edo haren ordezkariari, eta gutxienez bi aldiz saiatu bada egoitza fiskalean edo, hark eskatuta hasitako prozedura bada, interesdunak izendatutakoan, jakinarazpen-ahaleginen zehaztasunak jasoko dira espedientean.

2. Saiakera bakarria nahikoa izango da hartzailea ezezagun gisa agertzen bada aitortutako egoitza fiskalean edo alderdiak eskatutako prozeduretan jakinarazpenetarako izendatu zuen lekuan. Kasu horretan, interesatuari edo haren ordezkariari zitazioa egingo zaio, agerraldi bidez jakinarazi diezaioten. Iragarki horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, behin bakarrik, interesdun bakoitzarentzat.

3. Egoitza elektronikoan eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzean, jasotzeke dauden jakinarazpenen zerrenda agertuko da, honako hauek adierazita: zergapekoaren edo haren ordezkariaren nortasun-agiria, ordainagiriaren urtea, ordainagiriaren zenbakia eta ordaindu barik dagoen zenbatekoa, eta jakinarazpen horien hartzaileak jakinarazpena jasotzeko agertu beharko duen tokia eta epea.

Nolanahi ere, agerraldia egutegiko 15 eguneko epean egin beharko da, egoitza elektronikoan argitaratu edo iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta ez bada agertzen, jakinarazpena egintzat joko da, legezko ondorio guztietarako, adierazitako epea amaitu eta hurrengo egunean.

II. KAPITULUA

ZERGA KUDEATZEKO ARAU OROKORRAK

13.artikulua. — *Zergen kudeaketa*

Honako hauentzako administrazio-eginkizunak betetzea da:

- Tributuetan eragina duten aitortenak, autolikidazioak, datuen komunikazioak eta gainerako dokumentuak jasotzea eta izapidetzea.
- Zerga-araudian aurreikusitako itzulketak egiaztatzea eta egitea.
- Zerga-onurak bidezkoak direla aitortzea eta egiaztatzea.
- Zerga-aitortenak eta bestelako betebeharrak formalak aurkezteko betebeharra betetzen dela kontrolatzeko jarduerak egitea.
- Datuak egiaztatzeko eta frogatze mugatuko jarduketak egitea.
- Aurreko ataleko jarduketetatik eratorritako zerga-likidazioak egitea.
- Zerga ziurtagiriak ematea.
- Zerga-errolak egin eta mantentzea.
- Zerga-laguntza eta informazioa.
- Zerga ikuskatzeko eta biltzeko eginkizunetan sartuta ez dauden zergak aplikatzeko gainerako jarduerak.

14. artikulua. — *Zerga-kudeaketa hasteko moduak*

1. Zerga-araudian aurreikusitakoaren arabera, tributuen kudeaketa honela hasiko da:

- Hirugarrenek: Autolikidazio bidez, datuak jakinarazteagatik edo beste edozein aitorten-mota egiteagatik, edo zergapekoak eskatuta.
- Ofizioz: Zerga-administrazioak



2. Tributu-aitorpenzat hartuko da tributuak aplikatzeko garrantzitsua den edozein egitate aitortzen edo adierazten duen zerga administrazioaren aurrean aurkeztutako dokumentu oro.

Aitorpena aurkezteak ez du esan nahi zergapekoak zerga-betebeharraren bidezkoa suna onartzen edo aitortzen duenik.

3. Autolikidazioak dira zergapekoek, administrazioari tributuen likidaziorako beharrezkoak diren datuak eta informazio-erakundeak duten beste batzuk jakinarazteaz gain, beren kabuz egiten dituzten kalifikazio- eta kuantifikazio-eragiketak, tributu-zorraren zenbatekoa zehazteko eta ordaintzeko.

4. Datuak komunikatzea izango da zerga administrazioak itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko aurkeztutako aitorpena.

III. KAPITULUA

ONURA FISKALAK EMATEA

15. artikulua. — *Eskaera*

1. Salbuespenak, murriztapenak edo hobariak ematea edo ukatzea zerga bakoitzaren araudi espezifikoaren arabera izango da, eta inola ere ezin izango da analogia onartu salbuespenen edo hobarien eremua bere termino zorrotzetatik haratago zabalteko.

2. Oro har, ordenantzak edo foru arauak zehazki ezarritakoez edo baimendutakoez beste salbuespen, hobari edo murriztapenik ez da emango.

3. Zerga bakoitza arautzen duen araudian ezarritakoari kalterik egin gabe, onura fiskala alde batek eskatuta eman behar denean, eskaera honako egoera hauetan aurkeztu beharko da:

- a) Errolda bidez kudeatutako aldiakako tributuak direnean, dagokion ordenantzan alta edo aldaketa deklarazioak aurkezteko ezarritako epean.
- b) Behin hori emanda, onura fiskala hurrengo likidazioetan aplikatuko da, hura ematea eragin zuten egiteko edo eskubidezko inguruabarrak aldatzen ez diren bitartean.
- c) Autolikidazio-araubidea ezarrita duten diru-sarrerak direnean, dagokion autolikidazioa edo aitorpen-likidazioa aurkezteko epean.
- d) Gainerakoetan, dagokion zerga-aitorpena aurkezteko epeetan edo zerga-betebeharraren sorrera zehazten duen baimen edo baimenaren eskaera aurkezten den unean, dagokionaren arabera.

Aurreko paragrafoan aipatutako epeetan eskatzen bada eta bidezkoa bada, aitortu edo autolikidatu beharreko egintza edo negozio juridikoek sortutako zerga-betebeharrari aplikatuko zaie; gainerakoetan, hobaria eskaera egin ondoren sortutako zerga-betebeharrari aplikatuko zaie.

4. Onura fiskalak ofizioz eman behar direnean, interesdunari likidazioa egiten zaionean aplikatuko dira, edo onura horiek baliatzeko baldintzak betetzen diren egunetik aurrera, betiere horiek egiaztatzen dituen informazioa badago.

5. Tributu bakoitzaren araudiak zerga-onurak baliatzeko ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzea subjektu pasiboari dagokio.

16. artikulua. — *Zerga-onurak*

1. Udalean zerga-onuraren eskaera jaso ondoren, Errenta Sailak aztertuko du edukia, eta ebazpen-proposamena egingo du. Prozeduraren ebazpena jakinarazteko gehieneko epea zerga-onura arautzen duena izango da, eta, halakorik ezean, hiru hilabetekoa. Ebazteko epea igaro eta ebazpen adierazia jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsizat jo ahal izango da, aplikatu beharreko araudiak besterik ezartzen ez badu.

2. Onura fiskalak emateko edo aitortzeko egintzak behin-behinekoak izango dira, baldin eta etorkizuneko baldintza jakin batzuk betetzera edo eman ziren prozeduran



egiaztatu ez ziren betekizun jakin batzuk benetan betetzera baldintzatuta badaude. Zerga-administrazioak, gerora, tributuoak aplikatzeko prozedura batean egiaztatu ahal izango du baldintza edo betekizun horiek betetzen direla, eta, hala badagokio, zergapekoaren zerga-egoera erregularizatu ahal izango du, aldez aurretik behin-behineko egintza horiek berrikusi beharrik gabe, horretarako ezarritako berrikuspen-prozeduren arabera.

3. Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 10.4 artikulua-ren arabera, eta ordenantza fiskaletan aurreikusten diren baldintzetan, kuotaren %5arte-ko hoberia ezarri ahal izango da zergapekoen alde, baldin eta:

- a) Aldizkako epemuga duten zorrak finantza-erakunde batean helbideratzen badi-
tuzte, edo
- b) Zerga-zorren ordainketa aurreratzen badute, edo
- c) Diru-sarreraren bilketan lankidetzat eskatzen duten jarduerak egiten badituzte.

IV. KAPITULUA

ADMINISTRAZIO-BIDEAN BERRIKUSTEA

17.artikulua. — Arau komunak eta berrikusteko prozedura bereziak

1. Arau komunak

Tributuak aplikatzeko egintzak eta jarduerak eta tributu-zehapenak ezartzeko egin-
tzak honako hauen bidez berrikusi ahal izango dira:

- a) Berrikusteko prozedura bereziak.
- b) Berraztertze errekurtsoa.

Epai judizial irmo bidez berretsi direnean, ezin izango dira inola ere berrikusi zergak
aplikatzeko egintzak eta zehapenak ezartzekoak.

Berrikuspen-prozeduretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko abenduaren
10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean gaitasunari, ordezkaritza, probari eta jakinaraz-
penei buruz ezarritako arau orokorrak aplikatzen dira, baita epeak zenbatzeari buruzko
arauak ere.

Berrikuspen Prozedura Berezien, Berraztertze Errekurtsoaren eta Bizkaiko Lu-
rralde Historikoko Zergei buruzko abenduaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 222
artikuluaren zerrendatutako ekintzak arrazoituak izan beharko dute, egitateak eta zuzenbi-
deko oinarriak labur aipatuta.

2. Berrikusteko jardunbide bereziak

Berrikusteko jardunbide bereziak honako hauek dira:

- a) Erabat deusezak diren egintzak berrikustea.
- b) Egintza deuseztagarriak kaltegarritzat jotzea
- c) Baliogabetzea
- d) Akatsak zuzentzea.
- e) Bidegabeko sarrerak itzultzea.

18. artikulua. — Birjarpen errekurtsoa

1. Toki-erakundearen tributuen eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarreraren apli-
kazio- eta eraginkortasun-egintzen aurka, birjarpen errekurtsoa baino ezin izango zaio
jarri egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean, berrikusteko eskatzen den egintza
espresuki jakinarazi edo erroldak jendaurrean jartzeko aldia amaitu eta hurrengo egune-
tik aurrera.

Ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, errekurtsoa aur-
keztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2. Emandako ebazpena bat etorriko da interesdunak egindako eskaerekin, eta ezin
izango da inola ere bere hasierako egoera okerragotu. Hala ere, espedienteak eskaini-
tzen dituen gai guztiak aztertu ahal izango dira, errekurtsoan planteatutakoak izan edo



ez. Ebazteko eskumena duen organoak egokitzen jotzen badu berrikuspena interesdunek planteatu gabeko gaietara zabaltzea, prozeduran agertzen direnei azalduko dizkie, eta bost eguneko epea emango die alegazioak aurkezteko.

3. Birjarpenezko errekurtsoren ezeztapenaren kontra administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa jarri daiteke honako epe hauetan:

- a) Erabakia beren beregi hartu bada, hilabete biko epearen barruan, birjarpenezko errekurtsoren erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.
- b) Ebazpen adierazirik ez badago, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da sei hilabeteko epean, birjarpen errekurtsoa ezetsitzat jo eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

19. artikulua. — Errekurtsoa jartzeko bermeak

1. Birjartze errekurtsoa jartzeko ez da beharrezkoa eskatutako zenbatekoa aldeztu aurretik ordaintzea; hala ere, errekurtsoa jartzeak ez du, inola ere, administrazio-egintza geldiaraziko, salbu eta interesdunak errekurtsoa jartzeko epearen barruan eskatzen badu prozedura etetea eta zerga-zor osoa estaliko duen bermea aurkeztean badu. Kasu horretan etendura emango da.

2. Aurkaratzeak zerga-zehapen bati eragingo balio, betearazpena automatikoki etengo da, bermerik aurkeztu beharrik gabe. Era berean, interesdunak hala eskatuta, aurkaratutako egintzaren betearazpena eten egingo da bermerik aurkeztu beharrik gabe, baldin eta egintza ematean akats aritmetiko, material edo egitatezkoa egin bada.

Errekurtsoak kudeaketa partekatuko zerga bati buruzko errolda-egintza bati eragiten badiu, likidazioa kobratzeko prozedura ez da inola ere etengo.

3. Errekurtsogileak etendura lortzeko eratu behar duen bermea honako hau izan daiteke:

- a) Eskudirutan gordailutzea udal kutxan transferentzia bidez.
- b) Banku ofizial edo pribatu batek edo aurrezki-kutxa batek emandako abal solida-
rio.
- c) Adierazitako moduetan bermea jartzea zaila dela frogatzen denean, nahikoa ikusten den beste edozein eratan. Bermea nahikoa izatea udal Diruzaintzak baloratu beharko du kasu honetan.

4. Borondatezko ordainketa-aldian jarritako errekurtsoa ebatzita, eta ordainketa-etendura onartuta, bai erabakiak aurkaratutako administrazio-egintza baliogabetzen edo aldatzen ez badu, bai egintza hori aldatzen bada edo prozedura atzeraeraginean jartzeko agintzen bada, zorra aurreikusitako epe orokorretan ordaindu beharko da.

Hala ere, egintza administrazio-bidean etenda egon denean, bilketa-organismoek ez dute premiamendu-prozeduraren jardunik hasiko edo, hala badagokio, ez dute berriro ekingo harik eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea amaitu arte, betiere hasieran aurkeztutako kauzioaren indarraldia eta eraginkortasuna ordura arte mantentzen bada. Epe horretan, errekurtsoa jarri duela ohartaraziko balio interesatuak organoari geldiarazteko eskariarekin eta zorraren ordainketa bermatzeko kauzioaren eskaintzarekin batera, eutsi egin beharko zaio prozeduraren geldiarazpenari, haren indarraldia eta administrazio bidean jarritako bermearen eraginak dirauan bitartean.

20. artikulua. — Egintza deuseztagarrien erabateko deuseztasunaren eta kaltegarritasunaren adierazpenak.

1. Deuseztasun-adierazpena

1.1. Zerga-arloan emandako egintzen erabateko deuseztasuna deklaratu ahal izango du, baldin eta administrazio-bidea amaitu badute edo epearen barruan errekurritu ez badira, honako hauetan:

- a) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egitea.
- b) Gaia edo lurraldea dela-eta argi eta garbi eskumenik ez duten organismoek eman badituzte.



- c) Ezinezko edukia izatea.
- d) Arau-hauste penalak izatea edo arau-hauste penalaren ondorioz ematea.
- e) Legez horretarako ezarritako prozedura edo kide anitzeko organoen borondatea eratzeke funtsezko arauak erabat alde batera utzita eman badira.
- f) Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza espresoak edo ustezkoak, baldin eta egintza horien bidez ahalmen edo eskubideak eskuratzen badira, horiek eskuratzeko funtsezko betekizunak betetzen ez direnean.

g) Lege-mailako xedapen batean berariaz ezartzen den beste edozein.

1.2. Deuseztasuna deklaratzeko prozedura honako kasu hauetan hasi ahal izango da: egintza eman duen organoaren erabakiz edo interesdunak eskatuta.

1.3. Prozeduran, egintza eman zuen organoari eskatuko zaio administrazio-espedientearen kopia erkatu bat eta ebazteko garrantzitsuak diren prozeduraren aurrekari buruzko txosten bat bidaltzeko. Entzunaldia emango zaio interesdunari, eta entzun egingo dira egintzak eskubideak aitortu zizkienak edo egintza horrek eragindako interes legitimoak dituztenak.

1.4. Deuseztasuna adierazteko, aholkularitza juridikoaz arduratzen den organoaren aldeko irizpena beharko da aldezturik.

1.5. Prozedura hori udaleko Osoko Bilkurak ebatziko du.

1.6. Berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea urtebetekoa izango da, interesdunak eskabidea aurkeztzen duenetik edo prozedura ofizioz hasteko erabakia jakinarazten zaionetik.

1.7. Aurreikusitako epea igarotakoan, berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, iraungi egingo da:

- a) administrazioaren kabuz hasten bada edo administrazio-isiltasunez ezesten bada.
- b) interesdunak eskatuta hasi bazen.

1.8. Administrazio-bidea amaitzen du ebazpen espresak edo ustezkoak, edo interesdunaren eskaera izapidetzeko ez onartzeko erabakiak.

2. *Egintza deuseztagarrien kaltegarritasunaren adierazpena*

2.1. Zerga-administrazioak interes publikorako kaltegarritzat jo ahal izango ditu ordenamendu juridikoa hausten duten interesdunen aldeko egintza eta ebazpenak, ondoren administrazioarekiko auzibidean aurkaratzeko. Ebazpen-proposamena egin ondoren, udaleko aholkularitza juridikoari txostena eskatuko zaio, egintza kaltegarritzat jotzearen bidez kotasunari buruz. Udalaren Osoko Bilkurari dagokio kaltegarritzat jotzea.

2.2. Administrazio-egintza jakinarazi zenetik lau urte igaro ondoren, ezin izango da kaltegarritzat jo, eta prozeduran interesdun gisa agertzen diren guztiei entzun beharko zaie aldezturik.

2.3. Prozedura hasi eta hiru hilabeteko epean kaltegarritasuna deklaratu ez bada, prozedura iraungi egingo da.

2.4. Kaltegarritzat jo ondoren, administrazioarekiko auzien jurisdikziorako bidea zabaltzen da.

21. artikulua.— *Baliogabetzea*

1. Zerga-administrazioak bere egintzak baliogabetu ahal izango ditu interesdunen onurarako, baldin eta:

- a) Araua nabarmen hausten dutela uste denean.
- b) Egoera juridiko jakin bati eragiten dioten gerora sortutako zirkunstantziek agerian uzten dutenean emandako egintza bidegabekoa dela, edo
- c) prozedura izapidetzean interesdunak babesik gabe geratu badira.



2. Baliogabetzea ezin izango da izan, inola ere, zerga-arauek onartzen ez duten jaregite edo salbuespena, ezta berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa ere.

3. Preskripzio-epea igaro barik badago baino ezin izango da baliogabetu.

4. Baliogabetze prozedura ofizioz baino ez da hasiko, eragotzi gabe interesdunek edo egintza eman zuen organoak prozedura hastea sustatu ahal izatea, eta udalbatzak izango du prozedura hori adierazteko eskumena.

Espedientean entzunaldia ematen zaie interesdunei, eta aholkularitza juridikoko eginkizunak dituen organoaren txosten bat sartu beharko da, egintza baliogabetzearen bidez kototasunari buruzkoa.

Ebazpen adierazia jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedura hasteko erabakia jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Ezarritako epea igaro eta ebazpen adierazirik jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da.

5. Prozedura honetan ematen diren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute.

22. artikulua. — Akatsak zuzentzea

1. Egintza edo erreklamazioaren ebazpena eman duen organoak edozein unetan zuzenduko ditu, ofizioz edo interesdunak eskatuta, akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak, betiere kasuan kasuko ahalen preskripzio- edo iraungitze-epea igaro ez bada.

2. Zehazki, prozedura horren bidez zuzenduko dira espedienteari erantsitako agiritatik eratorritako egitezko akatsen bat gertatu den erreklamazio ekonomiko-administratiboaren egintzak eta ebazpenak.

Ebazpenak zuzendu egingo du akatsa zenbatekoan edo zuzentzen den egintzaren edo ebazpenaren beste edozein elementutan.

3. Ebazpen adierazia jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, interesdunak eskabidea aurkezten duenetik edo prozedura ofizioz hasteko erabakia jakinarazten zaionetik.

Aurreikusitako gehieneko epea igaro eta ebazpen adierazirik jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da ofizioz hasitako prozeduretan; horrek ez du eragotziko gerora beste prozedura bat hastea; eta administrazio-isiltasunez ezestea, interesdunak eskatuta hasi bada.

Prozedura honetan ematen diren ebazpenei berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaie.

23. artikulua. — Zor ez direnak itzultzea

1. Zor ez diren diru-sarrerak itzultzeko eskubidea aitortzeko prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, honako hauetan:

- a) Ordaindutako zenbatekoa administrazio-egintza baten edo autolikidazio baten ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoa baino handiagoa denean.
- b) Administrazio-ahalen preskripzio- edo iraungitze-epeak igaro ondoren zor edo zehapenei dagozkien zenbatekoak sartu direnean. Ez dira inolaz ere itzuliko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 250. artikuluan aurreikusitako kasuetan erantzukizunetik salbuesteko balio izan duten ordaindutako zenbatekoak.
- c) Indarrean dagoen legediak horrela ezartzen duenean.

2. Zor ez den diru-sarrera baten ondorioz itzuli beharreko zenbatekoa honako hauek osatuko dute: behar ez bezala egindako diru-sarreraren zenbatekoak, zor ez den diru-sarrera premiamendu-prozeduran egin bada ordaindutako kostuek, eta bidegabe sartutako zenbatekoen gainean indarrean dagoen berandutze-interesak, diru-sarrera egin zen egunetik dagokion itzulketa ordaintzeko agintzen den egunera arte kalkulatuta.

3. Itzulketa adierazitako kontu korrontean egingo da transferentzia bidez, itzulketa-erabakia edo, hala badagokio, beharrezko dokumentuak aurkeztu direla jakinarazi eta



hurrengo hilabetearen barruan. Horrela egin ezean, epe hori amaitzen denetik aurrera sortutako berandutze-interesa ordainduko du udalak.

4. Zor ez den diru-sarrera bat itzultzea erabaki ondoren, interesdunak zorrak baditu premiamendu-bide exekutiboan, konpentsatu egingo da, martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

5. Prozedura honetan ematen diren ebazpenei berraztertzeko errekurtoa jarri ahal izango zaie.

V. KAPITULUA

ZUZENBIDE PUBLIKOKO DIRU-SARRERAK BATZEA

24. artikulua. — «Zuzenbide publikoko diru-sarrera» kontzeptura igortzea

1. Toki-erakundeek tributuen, diru-sarrera publikoen eta zehatzeko ahalaren aplikazioari buruzko eskumenak beteko dituzte eta Foru Ogasunerako lege ezarritako eskumenak edukiko dituzte, eta, hala badagokio, dagozkion administrazio-prozeduren arabera jardungo dute.

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 2. artikuluaaren arabera, honako hauek dira toki-erakundeen zuzenbide publikoko diru-sarrerak:

- a) Zerga, tasa eta kontribuzio berezietan sailkatutako zerga propioak, baita oinarri eta kuoten gainean legez eska daitezkeen errekaruak ere, Foru Ogasunaren alde.
- b) Zerga itunduen, itundu gabeen eta gainerako diru-sarrera publikoen ordainsariak.
- c) Dirulaguntzak.
- d) Prezio publiko moduan jasotakoak.
- e) Kreditu-eragiketen emaitza.
- f) Bere eskumenen esparruan jarritako isunen eta zehapenen emaitza.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako xedeetarako, Bermeoko Udalak Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitako eskumenak, bermeak eta ahalmenak izango ditu.

25. artikulua. — Ordaintzera behartutakoak

1. Lehenengo eta behin ordaintzera behartuta daude:
 - a) Zergetako subjektu pasiboak, zergadunak zein ordezkioak izan;
 - b) atxikitzaileak eta
 - c) urratzaileak, diru-zigorren kasuetan.
2. Aurreko puntuan agertzen diren zordun nagusiek zor hori ordaintzen ez badute, ordaintzera behartuta egongo dira:
 - a) Erantzule solidarioak,
 - b) ustiategi eta jarduera ekonomikoen eskuratzailerak,
 - c) erantzule subsidiarioek, zordun nagusien kobraezinak deklaratu ondoren.
3. Kontrako araurik ezean, erantzukizuna subsidiarioa izango da beti.
4. Aurreko puntuetan zerrendatutako zorrak ordaindu behar dituztenen oinordeko «mortis causa»ak zordunaren posizioan subrogatuko dira, eta kausatzailerak ordaindu gabe dituzten zerga-betebeharrei erantzungo diete, legedi zibilak jarauntsia eskuratzeko ezartzen dituen mugekin. Hala ere, arau-hauslea hiltzean, ez da eskualdatuko hari ezarritako diruzko zehapenik.

26. artikulua. — Erantzule solidarioak

1. Zerga-zorren erantzule solidarioak izango dira honako pertsona edo erakunde hauek:



- a) Zerga-arloko arau-hauste bat eragin dutenak edo egiten aktiboki laguntzen dutenak. Bere erantzukizuna zehapenera ere zabalduko da.
 - b) Aurreko lerrokadan xedatutakoari kalterik egin gabe, jaraunspen banatu gabeen partaide edo titular-kideek, ondasun-erkidegoek eta gainerako erakundeek, nor-tasun juridikorik izan gabe, unitate ekonomiko edo ondare bereizi zergagarri bat osatzen badute, erakunde horien zerga-betebehar materialekiko duten partaide-tzaren proportzioan.
 - c) Ustiategi edo jarduera ekonomikoen titularitatean edo jardunean edozein kontzepturen ondorioz gertatzen direnak, aurreko titularraren zerga-betebeharren ondorioz gertatzen direnak, ordenantza honetako 26. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Honako pertsona edo erakunde hauek ere erantzule solidarioak izango dira, zerga-administrazioak enbargatu edo besterendu ahal izan dituen ondasun edo eskubideen balioaren zenbatekoraino, ordaintzeke dagoen zerga-zorra ordaintzeaz eta, hala bada-gokio, zerga-zehapenak ordaintzeaz, errekarua eta betearazpen-aldiko berandutze-in-teresa barne, halakoak bidezkoak direnean:
- a) Zergapekoaren ondasunak edo eskubideak ezkutatze edo eskualdatzeko era-gileak edo laguntzaileak direnak, zerga administrazioaren jarduna eragozteko helburuarekin.
 - b) Erruz edo zabarkeriaz, bahitura-aginduak betetzen ez dituztenak.
 - c) Bahiketaren, kautela-neurriaren edo bermearen eraketaren berri izanda, enbarga-tutako ondasun edo eskubideak edo kautelazko neurria edo bermea eratu zaien ondasun edo eskubideak altxatzeko laguntza edo baimena ematen dutenak.
 - d) Zordunaren ondasunen pertsona edo erakunde gordailuzainek, enbargoaren jakinarazpena jaso ondoren, ondasun horiek altxatzeko laguntza edo baimena ematen badute.
3. Foru Arauek erantzukizun solidarioko beste egoera batzuk ezarri ahal izango dituzte, aurreko paragrafoetan aurreikusitakoez bestelakoak.

27. artikulua. — Erantzukizun solidarioa eskatzeko prozedura

1. Erantzukizun solidarioaren kasuetan, zordun nagusiak zerga-zorra ordaintzen ez badu, eta zordun horren erantzukizunari kalterik egin gabe, udal ogasunak erantzukizun solidarioa erreklamatu ahal izango die erantzule solidarioei, halakorik balego. Boronda-tezko epea igarotakoan, zerga-zorra ordaindu ez dela ulertuko da.
2. Zordun nagusi baten edo erantzule solidario baten aurkako ekintzak ez dira oz-topo izango ondoren ordaintzera behartuta dauden gainerakoen aurka bideratzen dire-nentzat. Zor beraren erantzule solidarioak bat baino gehiago direnean, zor horiek udal ogasunaren aurrean duten erantzukizuna solidarioa izango da, berariaz besterik xedatu ezean.
3. Zorra ordaintzeko borondatezko epea amaitu aurreko edozein unetan erantzukizuna aitortu eta arduradunari jakinarazi bazaio, nahikoa izango da epe hori igarota-koan ordaintzeko eskatzea. Gainerakoetan, zorra ordaintzeko borondatezko epea igaro ondoren, organo eskudunak, interesdunari entzun ondoren, erantzukizuna adierazteko egintza emango du, eta erantzuleari jakinaraziko zaio.

28. artikulua. — Erantzule subsidiarioak

1. Zerga-zorraren erantzule subsidiarioak izango dira honako pertsona edo erakun-de hauek:
 - a) Pertsona juridikoen egitezko edo zuzenbidezko administratzaileek, baldin eta, tributu-arloko arau-hausteak egin ondoren, tributu-arloko betebeharrak eta egin-beharrak betetzeko beren eskumenekoak diren egintzak egin ez badituzte, haien mendekoek ez-betetzea onartu badute edo arau-hausteak ahalbidetzeko akor-dioak hartu badituzte. Bere erantzukizuna zehapenetara ere zabalduko da.



- b) Jarduera utzi duten pertsona juridikoen egitezeko edo zuzenbidezko administrazioaileek, pertsona juridiko horiek sortutako zerga-betebeharrengatik, baldin eta kargua uzten dutenean egin barik badaude, ordaintzeko behar zena egin ez badute, edo ez ordaintzea eragiten duten akordioak edo neurriak hartu badituzte.
- c) Konkurtso-administrazioaileak eta, oro har, sozietateen eta entitateen likidazioaileak, baldin eta ez badituzte beharrezko kudeaketak egin egoera horien aurretik sortutako zerga-betebeharrak osorik betetzeko, eta betebeharrak horiek zergapekoari egotzi ahal bazaizkie. Administrazio-eginkizunak esleituta dituztenean, administrazioaile gisa erantzungo dute egoera horien ondorengo zerga-betebeharrez eta zehapenez.
- d) Tributu-zorra ordaintzeko Foru Arau bidez atxikitako ondasunen eskuratzailerak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 80. artikuluan ezarritakoaren arabera.

29. artikulua.—*Erantzukizun subsidiarioa eskatzeko prozedura*

Zordun nagusia eta, hala badagokio, erantzule solidarioak kobraezintzat jo ondoren, zerga-bilketako organoak, interesduna entzun ondoren, erantzukizun-adierazpenaren egingiza emango du, eta erantzule subsidiarioari jakinaraziko zaio.

30. artikulua.—*Pertsona fisikoaren zorren ondorengoak*

1. Zergapekoak hiltzen direnean, ordaindu barik dauden zerga-betebeharrak jaraunslerei eskualdatuko zaizkie, legeria zibilak jarauntsia eskuratzeari buruz ezartzen duenari kalterik egin barik. Zehapenak ez dira inola ere eskualdatuko.

2. Eragilea hiltzen den egunean zerga-zorra likidatu gabe egoteak ez du eragotziko sortutako zerga-betebeharrak ondorengoei eskualdatzea. Horrelakoan, jarduketak horietako edozeinekin egingo dira, eta jarduketa horien ondoriozko likidazioa espedientearen agertzen diren interesdun guztiei jakinarazi beharko zaie.

3. Jaraunspena jasogabea den bitartean, jaraunspen jasogabearen ordezkariak bete beharko ditu eragilearen zerga-betebeharrak.

Eragilearen zerga-betebeharrak kuantifikatzea, zehaztea eta likidatzea helburu duten administrazio-jarduketak jaraunspen jasogabearen ordezkariarekin egin edo jarraitu beharko dira. Prozeduraren amaieran jaraunslerei nortzuk diren ez balira jakingo, likidazioak jaraunspen jasogabearen izenean egingo dira.

Aurreko paragrafoan aipatutako zerga-betebeharrak eta heriotza dela-eta eskualda daitezkeenak jaraunspen jasogabearen ondasunen kontura ordaindu ahal izango dira.

31. artikulua.—*Pertsona juridikoen eta nortasunik gabeko erakundeen zorren oinordekoak*

1. Legeak bazkideen, partaideen edo titularkideen ondare-erantzukizuna mugatzen duen nortasun juridikoa duten sozietate eta entitate desegin eta likidatuaren zerga-betebeharrak haiei eskualdatuko zaizkie, eta horiek solidarioki behartuta egongo dira, dagokien likidazio-kuotaren balioaren mugaraino, baita desegin aurreko bi urteetan haiek jasotako gainerako ondare-hartzekoen mugaraino ere, baldin eta betebeharrak horiei erantzun beharko liekeen gizarte-ondarea murrizten badute.

Legeak bazkideen, partaideen edo titularkideen ondare-erantzukizuna mugatzen ez duen nortasun juridikoa duten sozietate eta entitate desegin eta likidatuak ordaindu gabe dituzten zerga-betebeharrak oso-osorik eskualdatuko zaizkie horiei, eta horiek bete egin beharko dituzte solidarioki.

2. Sozietatearen edo entitatearen nortasun juridikoa azkentzeko unean zerga-zorra likidatuta ez egoteak ez du eragotziko ondorengoei sortutako zerga-betebeharrak eskualdatzea, eta horietako edozeinekin egindako jarduketak ulertu ahal izango dira.

3. Sozietateak eta nortasun juridikoa duten erakundeak likidaziorik gabe azkentzen edo desegiten badira, haien zerga-betebeharrak eskualdatuko zaizkie ondorengo diren pertsonari edo erakundeei, edo kasuan kasuko eragiketaren onuradun direnei. Arau hori



aplikatuko zaio, halaber, nortasun juridikoa duen sozietate eta erakunde baten aktibo eta pasiboaren edozein lagapen globalari.

4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 39.artikuluaren 3.paragrafoan aipatzen diren fundazioak edo erakundeak deseginez gero, horien zain dauden zerga-betebeharrak fundazioen ondasunen eta esku-bideen hartzaileei edo erakunde horien partaide edo titularkideei transmitituko zaizkie.

5. Artikulu honetan aipatzen diren sozietate eta erakundeek egindako arau-hausteengatik ezar daitezkeen zehapenak haien ondorengoei eskatu ahal izango zaizkie, aurreko paragrafoetan ezarritako moduan, eta, hala badagokio, artikulu honetako 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera zehaztutako balioaren mugaraino.

32. artikulua. — Zerga-egoitza

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 47.artikuluaren arabera, zerga-egoitza zergapekoaren kokalekua da zerga administrazioarekiko harremanerako.

Zerga-egoitza honako hau izango da:

- a) Pertsona fisikoentzat: Ohiko bizilekua.
- b) Pertsona juridikoentzat eta sozietateen gaineko zerga ordaindu behar duten gainerako erakundeentzat: Sozietatearen egoitza, baldin eta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza bertan zentralizatuta badaude. Bestela kudeaketa hori edo zuzendaritza hori egiten den lekua izango da.
- c) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona edo erakundeei dagokienean, zerga-egoitza zerga bakoitza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera zehaztuko da. Erregulaziorik ezean, helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 46.artikulan aipatzen den ordezkariarena izango da.
- d) Establezimendu iraunkorretarako: Egoitza fiskala administrazio-kudeaketa edo negozioen zuzendaritza egiten den lekua izango da.
- e) Sozietate zibilentzat eta nortasun juridikorik gabeko erakundeentzat: Kudeaketa eta zuzendaritza egiten den lekua.

Aurreko b), c) eta d) letretan jasotako irizpideak aplikatzeagatik zerga-egoitza zehaztu ezin bada, bere ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekua hartuko da kontuan.

2. Zergapekoek Bermeoko Udaleko zerga-administrazioari jakinarazi beharko diote euren zerga-egoitza zein den eta baita aldatuko balute ere. Ekonomia Itunaren 43. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, aitorpenik ez balego, zerga administrazioak ulertu ahal izango du zergapekoaren egoitza erroldan agertzen dena dela, edo titular gisa agertzen den edozein higiezin edo ustiapen ekonomikoren kokapena.

3. Bermeoko Udaleko zerga administrazioak egiaztatu eta zuzendu ahal izango du zergapekoek aitortutako zerga-egoitza, bere informazio-iturrien arabera kudeatu behar dituzten zergei dagokienez, eta zergadun bakoitzari lotutako kudeaketa-osagai gisa txer-tatuko da.

33. artikulua. — Ordainketa egiteko eta jasotzeko legezkotasuna

1. Ordaintzera behartutakoetatik edozeinek egin dezake ordainketa, baita zorra iraungitzeko ahalmen osoa duen hirugarren pertsonak ere.

2. Zorra ordaindu duen hirugarren horrek ezin izango dio eskatu administrazioari diru-sarrera itzultzeko, ezta behartuaren beste eskubideak betetzeko ere, bide zibilean legokiokeen egintzei kalterik egin barik.

34. artikulua. — Administrazioarekin lankidetzan aritzeko betebeharra

1. Pertsona fisiko edo juridiko orok, publiko zein pribatu, udal-administrazioari eman behar dizkio hark zuzenbide publikoko diru-sarrera gisa jaso behar dituen zenbatekoak kobratzeko behar diren datu eta aurrekariak.



2. Bereziki, epe exekutiboan udal-administrazioarentzat eskudirua edo kontuan dutenak, baloreak eta bestelako ondasun zordunak gordailutzen dituzten pertsonak edo erakundeak behartuta daude diru-bilketako organoei informazioa ematera eta legezko eginkizunak betez egiten diren errekerimenduak betetzera.

3. Artikulu honetan aipatzen diren lankidetzan aritzeko betebeharrak ez betetzeak zehapenak ezartzea ekar dezake.

35. artikulua.— Bilketa sistema

1. Zergak eta udal-zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk eskudirutan edo banku-helbideratze bidez bilduko dira, ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren titular-tasuneko kontu batean, edo besteren baten kontura, baldin eta besteren baimen espre-soa aurkezten bada.

2. Eskudirutan egiten den ordainketa honako tresna hauek erabiliz egin ahal izango da:

- a) Legezko dirua
- b) Bankuko edo aurrezki-kutxako kontuarekin egindako txekia. Txekiek behar bezala eratuta edo ziurtatuta egon beharko du, igorlearen beraren aurka libratzen denean izan ezik.
- c) Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidea
- d) Udalak baimendutako beste edozein

3. Diru-bilketa banku-erakunde laguntzaileen eta ordainketa eskatzeko berariazko baimena duten beste pertsona edo erakunde batzuen bidez egingo da.

36. artikulua.— Banku helbideratzea

1. Aurretik udal administrazioari eskatuko zaio.

2. Aldizka eguneratzen diren zergak helbideratu daitezke, baita bat, batzuk edo denak batera jakinarazten direnak ere.

3. Ordainagiriak kontuan zordunduko dira jakinarazpenean edo likidazioan agertzen den egunean.

4. Ordainagiria itzuliz gero, zenbatekoa ez bada borondatezko epean ordaintzen, nahitaezko diru-bilketa hasiko da.

5. Ordainketen helbideratzeak mugagabeak izango dira. Zergadunek edozein unetan baliogabetu edo aldatu ahal izango dituzte helbideratzeak, eta aldaketa horren berri eman beharko diote udal-administrazioari ezarritako epearen barruan.

6. Udalak helbideratzea baliogabetuko du ordainagiriak ezeztatutako edo blokeatutako kontu batetik itzultzen bazaizkio.

7. Udalak zehazten du helbideratze-eskaerak aurkezteko epemuga, edo helbideratzeak zein datatik aurrera izango dituen ondorioak. Hau da, normalean, helbideratze horrek eragina izango du argitaratu barik dagoen eroldan. Sarrera zuzenak direnean, hurrengo likidazioan.

8. Salbuespenezko kasuetan, helbideratutako ordainagiriak borondatez ordaintzeko epea luzatu ahal izango du alkateak.

37. artikulua.— Diru-bilketako aldiak

1. Erregelamenduz subjektu pasiboari jakinarazitako likidazio guztiek zorra ordaintzeko betebeharra sortzen dio subjektu pasiboari.

Udal-kudeaketaren eta -bilketaren efikazia- eta efizientzia-arrazoiengatik, ez dira likidatuko, eta ez da eskatuko 6 € baino gutxiagoko zenbatekoa duten zuzenbide publikoko zorrak ordaintzea, administrazio-dokumentuak emateagatiko tasa, landa- eta hiri-ondasun higiezinaren gaineko zerga, hainbanaketen ondoriozko zorrak eta autolikidazio-arau-bidean eskatzen direnak izan ezik.

2. Zerga-bilketa honela egin ahal izango da:



a) Borondatez ordainduta.

b) Betearazpen-aldian.

38.artikulua. Diru-bilketarako aldiak zehaztea

Zerga-zorra borondatez ordaintzeko epea zenbatzen hasiko da honako hauetatik aurrrera:

a) Likidazioa subjektu pasiboari zuzenean jakinarazten zaionetik, banaka egiten denean.

b) Diru-bilketarako epea zabaltzean, baldin eta aldika kobratzen diren zergak badi-ra eta multzoko jakinarazpena behar badute.

c) Subjektu pasiboak berak autolikidatutako zorrak, tributu bakoitza erregulatzen duten arauak ezarritako data edo epeetan.

39. artikulua. — *Ordaintzeko epeak*

1. Zerga-bilketa zerga-zorrak kobratzeko administrazio-eginkizunak betetzean datza.

2. Zerga-zorrak borondatezko epean eta betearazpen-aldian batu ahal izango dira.

3. Zerga-zorrak borondatez ordaintzeko epean ordaintzeko epeak tributu bakoitza arautzen duen udal-ordenantzak ezartzen dituenak dira.

4. Borondatezko aldian ordaintzeko ezarritako epea amaitzen bada, eta epe hori oso-osorik betetzen ez bada, ordaindu gabeko zorra ordaintzeko epea automatikoki hasiko da.

5. Betearazpen-aldia hasteak exekuzio-aldiko berandutze-interesak eta errekar-guak eskatzea ekarriko du, eta, hala badagokio, premiamendu-prozeduraren kostuak ere bai.

6. Berandutze- interesa hori galdagarria den aldian indarrean dagoen diruaren legezko interesa izango da, %25ean handituta, beste interes bat ezartzen ez bada.

7. Betearazpen-aldia hasteak berandutze-interesak sortzea ekarriko du, premiamendu-probidentzia ematen denetik zorra ordaintzeko emandako epea igaro arte igarotako aldian izan ezik, epe horretan sartutako zenbatekoengatik.

8. Errekargu exekutiboa, %5ekoa, automatikoki sortuko da, eta betearazpen-aldia- ren hasieran eskatu ahal izango da.

9. Premiamendu-probidentzia jakinarazi ondoren, eta hura jakinarazi zenetik zerga-zorra ordaintzeko emandako epea igaro ondoren, %20ko premiamendu-errekargua eskatuko da.

40. artikulua. — *Ordainketa geroratzea edo zatikatzea*

1. Zorraren ordainketa geroratu edo zatikatu ahal izango da, bai borondatezko epean, bai epe exekutiboan, obligaziodunek hala eskatuz gero, baldin eta beren egoera ekonomiko-finantzarioak aldi baterako eragozten badie ordainketa ezarritako epeetan egitea. Geroratu edo zatikatzen diren zenbatekoek, premiamenduzko errenergua izan ezik, berandutze interesak sortuko dituzte, non eta aplikatu beharreko ordenantzak ez duen aurreikusten halakorik ez eskatzea, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 10.3 artikulua- ren arabera:

«Zerga-ordenantzetan aurrez ikusita egonez gero, ez da berandutza- interesik eskatuko borondatezko epearen barruan ordainketa geroratzeko edo zatikatze-ko eskatu eta aldeko erabakia ematen denean, ordenantza- n ezarritako baldintzen eta gainerako inguruabarren arabera, baldin eta:

- zorrak aldi-ko muga-eguna badute eta talde-ka jakinarazte-koak badira, eta
- beren zenbate-ko osoa sortu diren ekitaldi berean ordaintzen bada.»

2. 100 eurotik beherako zorrik ezin izango da ez zatikatu ezta atzeratu ere.

3. Ordainketak atzeratu edo zatikatu ahal izateko eskatzaileak ordainketa helbide- ratu beharko du.



4. Ez da zatikatzerik edo geroratzerik izapidetuko, inolako salbuespenik gabe, ez bada zordunak betearazpen-aldian duen zor osoagatik eta ez badaude geroratuta edo zatikatuta.

Zorra borondatezko epean atzeratzeko edo zatikatzeko eskatuz gero, zor bakar baten gainean egin ahal izango da.

5. Zorra atzeratzeko edo zatikatzeko gehieneko epea, edo eskaeran sartutako zorren bateratzekoa, honako hau izango da:

- 6 hilabete zorren zenbatekoa 100 eta 1.000,00 euro artean badago.
 - 8 hilabete zorren zenbatekoa 1.000 eta 3.000 euro artean badago.
 - 12 hilabete zorren zenbatekoa 3.000 eta 12.000 euro artean badago.
 - 24 hilabete zorren edo zorren zenbatekoa 12.000 eurotik gorakoa bada.
 - Salbuespen gisa, ezarritako epea baino gehiago atzeratu edo zatikatu ahal izango da zorrak ordaintzea.
6. Onartezinak izango dira atzeratzeko eta zatikatzeko eskaera honako hauetan:
- Zorra autolikidazioz aurkeztu behar denean eta ez bada aurkezten,
 - Autolikidazioa aurretik prozedura edo ikerketa bat hasita aurkeztu denean eta
 - Eskaera dagoeneko ukatuta dagoen beste batena denean, eta eskaera ukatzeko arrazoietan funtsezko aldaketarik ez badago.

Ez onartzeko erabakiaren aurka berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango da.

7. Atzeratutako zenbatekoa ordaintzen ez bada, ordaindu barik dagoen zor osoa betearazpen-bidean eskatu ahal izango da.

Bi zati mugaeguneratzean ordaintzen ez badira, zor guztia betearazpen-bidean ordainaraziko da, eta ordaindu barik dauden zati guztiak mugaeguneratutzat joko dira.

Betearazpen-aldia hasita, premiamendu-probidentzia emango da, eta berehala betearazi ahal izango da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 60.3 artikulua lehenean paragrafoan aipatzen den ezohiko epea aplikatu beharrik gabe.

Ondorio bera gerta daiteke honako kasu hauetan:

- Ordainketa atzeratzea edo zatikatzea onartzeko ezarritako baldintzak bete ez badira, eta emakida hori ondiorik gabe geratu bada.
- Ordainketa atzeratzeko edo zatikatzeko eskaera bat onartu ez bada, edo konpentsazio-eskaera bat ukatu bada alderdi batek eskatuta edo ordainean emateko.

8. Atzeratutako edo zatikatutako zorrak, borondatezko ordainketa-aldian nahiz betearazpen-aldian, ofizioski konpentsatu ahal izango dira, osorik edo zati batean, zordunak bere alde dituen kredituekin. Horrek atzeratutako edo zatikatutako zenbatekoak birdoitzea ekarriko du, eta, hala, zenbateko horien amortizazio-epea murriztuko da, edo, hala badagokio, aldez aurretik ezereztu ahal izango dira, salbu eta zor horiek behar bezala bermatutako borondatezko ordainketa-aldian badaude.

41. artikulua. — Eskaera

1. Atzeratze- edo zatikatze-eskaerak, kasuaren arabera, udalak ezarritako eredu bidez egingo dira. Horretarako, eskabidea behar bezala bete ondoren, epe hauetan aurkeztu beharko da:

- Borondatezko aldiko zorrak: borondatez ordaintzeko edo dagokion autolikidazioa aurkezteko epearen barruan.
 - Betearazpen-bideko zorrak: enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakia jakinarazi aurreko edozein unetan.
2. Atzeratzeko edo zatikatzeko eskaerak datu hauek izan behar ditu nahitaez:
- Eskatzailearen izen-abizenak, izen soziala edo izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbide fiskala, eta, hala badagokio, haren ordezkariarena. Eskatzaile-



learen izen-abizenak, izen soziala edo izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbide fiskala, eta, hala badagokio, haren ordezkariarena.

- b) Atzeratzea/zatikatzea eskatzen den zorraren identifikazioa, gutxienez zenbatekoa, kontzeptua eta borondatezko diru-sarrera egiteko epearen amaiera-data adierazita. Autolikidazioa denean, autolikidazioaren agiria behar den moduan beteta.
 - c) Atzeratzea edo zatikatzea eskatzeko arrazoiak.
 - d) Eskatzen den atzeratze edo zatikatzearen epeak eta gainerako baldintzak.
 - e) Lekua, data eta eskatzailearen sinadura.
 - f) Banku-helbideratzearen agindua, nazioarteko banku-kontuaren zenbakia (IBAN) eta kontuko zordunketa egin behar den kreditu-erakundearen identifikazio-datua (BIC kodea).
3. Oro har, zordunari ez zaio eskatuko zorrak atzeratu edo zatikatze bermeak ematea, ordaindu barik dagoen zenbateko osoa 6.000,00 eurotik gorakoa ez denean.

VI. KAPITULUA

ZORRAK KITATZEA

42. artikulua.— *Kitatzearen arrazoiak*

- 1. Zerga-zorrak honako hauengatik kitatu ahal izango dira:
 - a) Ordaintzea
 - b) Preskripzioa
 - c) Iraungitzea
 - d) Konpentsazioa edo barkatzea
 - e) Legezko xedapenetan aurreikusitako gainerako bideak.
- 2. Zerga-zorra ordaintzeak, konpentsatzeak edo barkatzeak ondorio askatzaileak ditu ordaindutako, konpentsatutako edo barkatutako zenbatekoan soilik.

43. artikulua.— *Preskripzioa eta iraungitzea*

- 1. Preskripzioa eskubide bat finkatzea edo azkentzea da, denbora igaro edo pasatzea eragiten duen arrazoi gisa. Ekintza azkentzen du, eta ez eskubidea, eta eten egin daiteke.
- 2. Iraungitzeak eskubide bat azkentzen du eskubide hori egikaritzeko emandako denbora igarotzeagatik. Ezin da eten.
- 3. Preskripzioaren eta iraungipenaren xede da zerga-administrazioak dagokion likidazioaren bidez zerga-zorra zehazteko duen ahala gauzatzea.
- 4. Preskripzioa eta iraungipena aldi berean gertatzen dira, eta, beraz, zerga-zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko administrazio-ahala ezin izango da gauzatu haietako bat gertatu ondoren.
- 5. Preskripzioaren xede dira:
 - a) Zergapekoak zerga bakoitzaren araudiaren ondoriozko itzulketak eskatu eta lortu beharreko eskubideak baliatzea.
 - b) Bidegabeko sarrerak itzultzea.
 - c) Bermeen kostua itzultzea.
 - d) Zerga-administrazioak likidatutako eta autolikidatutako zerga-zorren ordainketa eskatzeko duen ahalmena baliatzea.
- 6. Irabazitako preskripzioak edo iraungitzeak berdin-berdin aprobetxatzen dituzte zerga-zorra ordaindu behar duten guztiak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 69.artikuluaren 8.paragrafoan mankomunatutako betebeharren kasurako xedatutakoa izan ezik.



7. Preskripzioak eta iraungitzeak zerga-zorra azkentzen dute, eta ofizioz aplikatuko dira.

44. artikulua.— Preskripzio epeak

1. Ordenantza honetako 43. artikuluko 3. eta 5. paragrafoetan aipatzen diren administrazio-ahalen eta zergapekoen eskubideen erabilera lau urtera preskribatuko da.

2. Preskripzio-epea arau hauen arabera hasiko da zenbatzen:

- a) 43.3 artikuluari dagokionean, aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko arauzko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) 43.5 artikuluari dagokionean, oro har, borondatezko epean ordaintzeko epea amaitzen den egunaren biharamunetik.
- c) Zergapekoek zerga bakoitzaren araudiaren ondoriozko itzulketak, bidegabeko sarreren itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketa eskatzeko duten eskubidea-
ren kasuan:
 - I. Zerga bakoitzaren araudiaren ondoriozko itzulketa eskatzeko epea amaitzen den egunaren biharamunetik edo,
 - II. Eperik ez badago:
 - a) Itzulketa hori eskatu ahal izan zen egunaren biharamunetik, bidegabeko sarrera egin zen egunaren biharamunetik, edo
 - b) Autolikidazioa aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik, bidegabeko diru-sarrera epe horren barruan egin bazen; edo
 - c) Aurkaratutako egintza erabat edo partzialki bidegabetzat jotzen duen epaia edo administrazio-ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik.

3. Erantzule solidarioei ordaintzeko betebeharra eskatzeko ahalari dagokion preskripzio-epea zenbatzen hasiko da zordun nagusiak bere borondatez ordaintzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, erantzukizunaren oinarria osatzen duten egitateak aurreko lerrokadan ezarritako epearen ondoren gertatzen badira, preskripzio-epe hori egitate horiek gertatzen diren unetik aurrera hasiko da.

Erantzule subsidiarioen kasuan, preskripzio-epea zenbatzen hasiko da zordun nagusiari edo erantzule solidarioetako edozeini egindako azken bilketa-jarduera jakinarazten zaionetik.

45. artikulua.— Preskripzioa etetea

1. Likidazio egokiaren bidez zerga-zorra zehazteko ahala egikaritzeko preskripzio-epea honako hauetan eteten da:

- a) Tributu-administrazioak, zergapekoaren ezagutza formalarekin egindako edozein ekintzagatik, dagokion zerga-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aitortu, erregularizatu, egiaztatu, ikuskatu, ziurtatu edo likidatzeko, nahiz eta ekintza hasiera batean tributu-betebeharraren autolikidazio okerraren ondorioz beste tributu-betebehar batera bideratu.
- b) Edozein motatako erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen denean, erreklamazio edo errekurtsoren izapideetan jarduketak egiten direnean, zergapekoak formalki jakinda, Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje batzordeari gatazka bat aurkeztu zaionean, erruduntasun-testigantza zigor-arloko jurisdikziora igortzeagatik edo Fiskaltzari salaketa aurkezteagatik, baita abian den administrazio-prozedura geldiaraztea agintzen duen jurisdikzio-organo baten komunikazioa jasotzeagatik ere.
- c) Zerga-zorra likidatzeko edo autolikidatzeko zergapekoak egindako edozein jarduketa frogagarriengatik.



2. Likidatutako eta autolikidatutako zerga-zorren ordainketa eskatzeko ahala erabiltzeko preskripzio-epea honako hauetan eteten da:

- a) Zerga-administrazioaren edozein ekintzagatik, zergapekoak horren berri formala izan eta zerga-zorra benetan biltzeko bada.
- b) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen denean; erreklamazio edo errekurtsoren izapideetan jarduketak egiten direnean, zergapekoari formalki jakinarazita; Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean; zordunak konkurtso-adierazpena egiten duenean edo zerga-zorra ko-bratzeko ekintza zibilak edo penalak egiten direnean; jurisdikzio-organo batek aribideko administrazio-prozedura gelditzeko emandako agindua jasotzen denean.
- c) Zergapekoak edo konturako hirugarren batek egindako edozein jarduketa frogagarriengatik, baldin eta zergapekoa jakitun badago eta zerga-zorra aitortu, ordaindu edo azkentzeko bada.

3. Zerga bakoitzaren araudiaren ondoriozko itzulketak, bidegabeko sarreraren itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketa eskatzeko zergapekoek duten eskubidearen preskripzio-epea eten egiten da:

- a) Zergapekoak bere autolikidazioa itzultzea, diru-itzultzea edo zuzentzea nahi duen edozein jarduketa frogagarriengatik.
- b) Zerga-administrazioak eskubidea aitortzeko, itzultzeko edo diru-itzultzerako edozein ekintza.
- c) Edozein motatako erreklamazioak edo errekurtsuak aurkeztu, izapidetu edo ebazteagatik, edo Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje batzordean gatazka bat aurkezteagatik.
4. Etenaldia gertatzen denean, preskripzio-epea zenbatzen hasiko da berriro:
 - a) Preskripzio-epea eten denean administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren errekurtsua aurkezteagatik.
 - b) Akzio zibilak edo penalak erabiltzeagatik.
 - c) Erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari igortzeagatik edo Fiskaltzari salaketa aurkezteagatik
 - d) Prozedura geldiarazteko jakinarazpen judiziala jasotzeagatik.

Preskripzio-epea berriz hasiko da zenbatzen:

- a) Zerga-administrazioak prozesu judiziala amaitzen duen edo geldiaraztea kentzen duen ebazpen irmoaren jakinarazpena jasotzen duenean, edo
- b) Fiskaltzatik espediente itzultzeko jakinarazpena jasotzen denean.

5. Aurreko lerrokan xedatutakoa ez zaio aplikatuko tributu-administrazioak ordainketa eskatzeko duen ahalaren preskripzio-epeari, baldin eta administrazio-azibidean etetea erabaki ez bada.

6. Preskripzio-epea zordunaren konkurtsoa deklaratzegatik eteten denean, zenbaketa berriro hasiko da konkurtsoa amaitzeko ebazpen judiziala irmo bihurtzen denean.

7. Hitzarmen bat onartu bada, berriro hasiko da preskripzio-epea, hitzarmen honen mende ez dauden zerga-zorretarako onartzen den unean.

8. Konkurtso-hitzarmenaren mende dauden tributu-zorrei dagokienez, preskripzio-epea berriro hasiko da zenbatzen, zor horiek zordunari galdagarri zaizkionean.

9. Preskripzio-epea eten bada Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje batzordearen aurrean gatazka bat aurkezteagatik, berriro hasiko da zenbatzen preskripzio-epea, hark hartutako erabakiaren jakinarazpena jasotzen den unean.

10. Preskripzio-epea zergapeko batentzat eteten denean, ondorio hori gainerako obligaziodun guztietara zabaltzen da, erantzuleak barne. Hala ere, betebeharra mankomunatua bada eta zergapekoetako bati dagokion zatia bakarrik erreklamatzeko bazea, epea ez da etengo gainerakoentzat.



11. Ordaintzeko betebeharra duen pertsona beraren kontura likidatutako zor bat baino gehiago egonez gero, preskripzioa eteteak dagokion administrazio-jarduketari dagokion zorrari bakarrik eragingo dio.

12. Artikulu honetako 1. ataleko b) letran jasotako preskripzio-epea zenbatzen has-tea eteteak, zordun nagusiari edo erantzularen bati dagokionez, ondorio bera dakar solidarioki ordaintzera behartuta dauden gainerako subjektuei dagokienez, hargatik eragotzi gabe horien aurrean bidezkoak diren kobrantza-ekintzak jarraitzea.

13. Epea ez da etentzat joko edozein motatako errekursoak edo erreklamazioak aurkezteagatik etendura gertatu bada, baldin eta zergapekoak aurkeztutako errekurso edo erreklamazio horiek osorik baietsi badira eta administrazio-egintzaren elementuak erabat deuseztatu badira.

46. artikulua. — *Iraungitze-epeak*

1. Zerga-zorra likidazioaren bitartez zehazteko administrazioaren ahala sei urteren buruan iraungiko da.

Hala ere, iraungitzeak ez die eragingo honako hauei:

- a) Tributu-betebeharpekoak zerga bakoitzaren araudiaren ondoriozko itzulketak lortzeko duen eskubidea aitortzeko beharrezkoak diren likidazio-egintzak.
- b) Bidegabeko sarreraren bueltatzeak edo
- c) bermeen kostuaren itzulketa, zergapekoaren eskubide horien egikaritza preskribatuta ez dagoen bitartean.

2. Aurreko artikuluan aipatzen den ahalaren egikaritzaren iraungipen-epea hasiko da zenbatzen, dagokion aitortpena edo autolikidazioa aurkezteko erregelamenduzko epea amaitzen den egunaren biharamunetik.

47. artikulua. — *Iraungitzea etetea*

1. Iraungitze-epearen zenbaketa etenda geratuko da honako hauetan:

- a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsa jartzeagatik.
- b) Berraztertze errekurtsa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkezteagatik edo peritu-tasazio kontraesankorra eskatzeagatik.
- c) Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje batzordean gatazka bat aurkezteagatik.
- d) Erruduntasun-testigantza jurisdikzio penalera igortzeagatik edo Fiskaltzan salaketa aurkezteagatik, baita abian den administrazio-prozedura geldiarazteko agintzen duen organo jurisdikzional baten komunikazioa jasotzeagatik ere.

2. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren III., IV. eta V. tituluetan araututako prozeduretan zergapekoari egotz dakizkiokkeen luzapentzat hartzen diren epeetan iraungitze-epeen zenbaketa etenda dagoela ulertuko da.

3. Iraungitze-epea arrazoi hauengatik eteten denean:

- a) Berraztertze errekurtsa aurkeztea
- b) Erreklamazio ekonomiko-administratibo bat edo
- c) peritu-tasazio kontrajarria eskatzeagatik

Ebazpena ematen den unean jarraituko du zenbaketak, kasu bakoitzerako aurreikusitako ebazteko gehieneko epeak igaro direnean izan ezik; orduan, ebazteko gehieneko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera jarraituko du.

4. Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje batzordean gatazka bat aurkezteagatik iraungitze-epea eteten bada, gatazka horren zenbaketak aurrera jarraituko du hartutako erabakiaren jakinarazpena jasotzen den unean.

5. Etetea gertatzen denean, iraungitze-epearen zenbaketa eten egingo da, eta honako hauetan jarraituko du:



- a) Zerga-administrazioak prozesu judiziala amaitu edo geldiarazpena kentzen duen ebazpen irmoaren jakinarazpena jasotzen duenean
- b) Edo fiskaltzaren jakinarazpena jasotzen denean espediente itzultzeko, eta administrazio-ahalak baliatu ahal izango dira sei urteak bete arte epe horretatik geratzen den denborarako.

6. Artikulu honetan aipatzen den iraungitze-epea ez da etentzat joko, baldin eta etetearen arrazoia berraztertzeko errekurtsua, erreklamazio ekonomiko-administratiboa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu izana izan bada, eta errekurtsu horiek osorik baietsi badira eta, ondorioz, erabat deuseztatu badira haiek jarri ziren administrazio-egintzaren elementuak.

48. artikulua. — Konpentsazioa

1. Zergapeko baten zerga-zorrak osorik edo zati baten azkendu ahal dira berari administrazio-egintza bidez aintzatetsitako kredituen bidez konpentsatuta.

2. Konpentsazioa ofizioz edo zergapekoak eskatuta erabakiko da.

3. Konpentsazioa, zergapekoak eskatuta.

a) Zergapekoak bere alde aitortutako kredituekin konpentsatzeko eskatu ahal izango du borondatez ordaintzeko aldian nahiz betearazpen-aldian dauden zerga-zorrak.

b) Konpentsazio-eskaera borondatezko epean aurkezten bada, ezingo da hasi zorra betearazteko aldia, hura izapidetzen den bitartean aitortutako kredituarekin bat datorrena.

c) Zerga-zorra iraungiko da eskaera aurkezten den unean edo zorretarako eta kredituetarako eskatzen diren baldintzak betetzen direnean, baldin eta une hori eskaera aurkeztu ondorengoa bada. Konpentsazio-erabakiak iraungitze hori aldarrikatuko du.

4. Ofiziozko konpentsazioa.

a) Zerga-administrazioak ofizioz konpentsatuko ditu betearazpen-aldian dauden zerga-zorrak.

Zuzenbide publikoko erakundea ez den zerga administraziozko zordun bat, aldi berean, aitortutako kreditu baten hartzekoduna bada, borondatezko epea igarota, zorra kredituarekin konpentsatuko da ofizioz, edozein dela ere dagokion betearazpen-prozeduraren fasea.

b) Era berean, honako hauek ofizioz konpentsatuko dira borondatezko epean:

I. Egiaptapen edo ikuskapen mugatuko prozedura beraren ondorioz ordaindu beharreko eta itzuli beharreko zenbatekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren VI. tituluaren xedatutakoa aplikatuz emandako likidazioak barne, edo aurreko likidazio bat deuseztatu delako likidazio berri bat egitearen ondoriozkoak, arau horren 26. artikuluen 6. atalean xedatutakoaren arabera.

II. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 232. artikuluen 3. apartatua eta 244. artikuluen 7. apartatua aipatzen den ebazpena betearaztearen ondorioz sartu eta itzuli beharreko zenbatekoak.

c) Bermea eratuta ez duten geroratutako edo zatikatutako zorrak ofizioz konpentsatu ahal izango dira borondatez ordaintzeko epean.

d) Borondatezko epean ordaintzeko epea igaro ondoren, ofizioz konpentsatu ahal izango dira zuzenbide publikoko erakundeek udal horrekin dituzten zor mugae-guneratuak, likidoak eta galdagarriak.

e) Zerga-zorra betearazpen-aldia hasten den unean iraungiko da, edo zorretarako eta kredituetarako eskatzen diren baldintzak betetzen direnean, une hori geroa-gokoa bada. Konpentsazio-erabakiak iraungitze hori adieraziko du.



Borondatezko epean egin beharreko ofiziozko konpentsazioetan, zorrak eta kredituak pilatzen diren unean gertatuko da azkentzea, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

49. artikulua. — *Barkamena*

Zerga-zorrak foru-arau baten bidez baino ezin izango dira barkatu, bertan zehazten diren zenbatekoan eta baldintzetan.

50. artikulua. — *Kaudimengabezia-egoerak*

1. Kreditu kobraezinak dira diru-bilketa kudeatzeko prozeduran ordaindu ezin direnak, ordaintzera behartuta daudenak kobraezinak direlako.
2. Kobraezintzat joko dira zorra kobratzeko ondasun edo eskubide enbargagarriak edo diru bihurgarriak ez dutenak.
3. Kaudimengabezia partzialaren ondoriozko kobraezintzat joko dira ordaintzeko betebeharra dutenak, baldin eta haien ondare enbargagarri edo bihurgarri ezaguna zorraren zati bat estaltzera soilik iristen bada.
4. Zorduna trafiko-zehapenetatik eratorritako zorreatatik bakarrik bada, kobraezinen deklarazioa, eta, hala badagokio, kobraezinena, kontu korronteak, lansariak, soldatak eta pentsioak enbargatzeak emaitzarik izan ez eta gero egin ahal izango da, salbu eta espedientearen zenbatekoaren, antzinasunaren edo beste inguruabar berezi batzuen arabera haren indarraldiari eustea komeni denean.
5. Kreditu kobraezintzat hartu ahal izango dira, halaber, zordun eta erantzuleak fiskalki identifikatu ezin direnak.
6. Diru-bilketako organoak kreditu kobraezinak deklaratu dituzte, eta udalaren kontabilitate-organoari helaraziko dizkio, dagozkion ondorioetarako.

VII. KAPITULUA**IKUSKAPENA, ZERGA ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK****51. artikulua. — *Tributuen ikuskapena***

Zerga-ikuskapena honako administrazio-eginkizunak gauzatzean datza:

- a) Zerga-betebeharren egitateak ikertzea, administrazioak ezagutzen ez dituenen berri jakiteko.
- b) Zergapekoek aurkeztutako aitortzen benetakotasuna eta zehaztasuna egiaztatzea.
- c) Zergen ezarpenarekin zerikusia duten informazioa lortzeko jarduerak egitea.
- d) Zerga-betebeharrak zehazteko beharrezkoa denean, eskubideen, errenten, ekoizkineen, ondasunen, ondareen, enpresen eta gainerako elementuen balioa egiaztatzea.
- e) Zerga-onurak edo -pizgarriak eta zerga-itzulketak lortzeko eta zerga-araubide bereziak aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzea.
- f) Ikuskapen-jarduketak direla-eta zergapekoei euren eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa ematea, eta betebeharrak nola bete behar dituzten azaltzea.
- g) Ikerketa eta egiaztatze lanak egin ondoren atera diren zerga-kitapenak egitea.
- h) Egiaztapen mugatuko jarduketak egitea.
- i) Herri administrazioako beste organo batzuei aholkuak zein txostenak ematea.
- j) Zerga-arloko esku-hartze iraunkorrak edo ez-iraunkorrak egitea. Esku-hartze horiek beren araudi espezifikoan xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta, berriazko erregulaziorik ez badago, Ikuskapen Jarduerak eta Prozedura erregulatzen dituzten arauen arabera, salbu eta izaera partzialeko ikuskapen-jarduketaren xede den tributuko-betebeharpekoak eskatuta hasitako esku-hartze orokorra.



- k) Zerga bakoitza arautzen duten ordenantza fiskaletan ezarritakoak eta beste xedapen batzuetan ezartzen diren edo agintari eskudunek agintzen dizkioten gainerakoak. Baita Estatuko administrazioak baimendutako eskuordetze- edo lan-kidetza-araubidearen ondoriozkoak ere, eta dagozkien erroldetan agertu behar duten eta horietan jasota ez dauden subjektu pasiboak dagozkien erroldetan sartzea.

52.artikulua. — Zerga-arloko arau-haustek

1. Tributu-arloko arau-haustek dira doluzko edo erruzko ekintzak edo ez-egiteak, edozein dela ere haien zabarkeria, baldin eta tributu-arauetan tipifikatuta eta zehatuta badaude.

2. Tributuaren arloko arau-haustek eta zehapenak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta gainerako zerga-xedapenetan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

3. Pertsona fisiko edo juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 34.artikuluaren 3.paragrafoan aipatutako erakundeak izango dira arau-hausleak, baldin eta foru-arauetan edo legeetan arau-haustetzat tipifikatutako ekintzak edo ez-egiteak egiten badituzte.

Besteak beste, honako hauek izango dira subjektu arau-hausleak:

- a) Subjektu pasiboak.
- b) Konturako ordainketak egitera behartuta daudenak.
- c) Zergatik eratorritako partikularren arteko betebeharretan behartu daudenak.
- d) Zerga-betebehar formalak betetzera behartuta daudenak.
- e) Zerga-baterakuntzaren araubidean nagusi den erakundea.
- f) Bazkideei edo kideei errentak egozteko edo esleitzeko betebeharra duten erakundeak.
- g) Zergetan jarduteko gaitasunik ez duten behartutako subjektuen legezko ordezkaria.

Subjektu arau-hauslea zordun nagusitzat hartuko da erantzukizun-adierazpenari dagokionez.

Hainbat subjektu arau-hausle zerga arloko arau-hauste bat egiten ari badira, administrazioaren aurrean solidarioki behartuta geratuko dira zehapena ordaintzera.

4. Foru arauetan edo legeetan tipifikatutako egite edo ez-egiteek ez dute erantzukizunik sortuko zerga arloko arau-hausteengatik, honako kasu hauetan:

- a) Zerga-arloan jarduteko gaitasunik ez dutenek egiten dituztenean.
- b) Ezinbesteko egoeretan.
- c) Taldeko erabaki baten ondorio direnean, botoa salbatu dutenentzat edo botoa eman zen bilerara joan ez direnentzat.
- d) Zerga-betebeharrak betetzeko behar den arreta jarri denean.

Besteak beste, beharrezko eginbidea jarri dela ulertuko da, baldin eta aitorpen egiazkoa eta osoa aurkeztu bada eta, hala badagokio, dagokion autolikidazioa edo aitorpena egin bada, arauaren arrazoizko interpretazio baten babestuta.

5. Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez ditu eragotziko bidezkoak izan daitezkeen errekaruak eta berandutze-interesak, ezta aitorpen, autolikidazio edo eskaera berriak berandu edo oker aurkeztearen ondorioz egin daitezkeen arau-haustek ere.

6. Zerga administrazioak uste badu arau-haustea ogasun publikoaren aurkako delitua izan daitekeela eragindako kaltea ikusita, espedientea jurisdikzio eskudunari bidaliko dio interesdunari entzun ondoren, eta ez du administrazio-prozedurarik jarraituko, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren VI. tituluan aurreikusitako jarduerak izan ezik.

Prozedura etenda geratuko da honako hau gertatzen den bitartean:

- a) Agintaritza judizialak epai irmorik ez badu ematen.



- b) Jarduketak amaitutzat jotzea edo artxibatzea edo
- c) Fiskaltzak espedientea itzultzea.

7. Aurreko paragrafoan aipatutako entzunaldiaren izapidea ez da beharrezkoa izango Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauren 110.artikuluaren 3.paragrafoan aurreikusitakoetan edo zerga administrazioaren ikerketa jardunaren eraginkortasunari kalte egin dakiokenean, nahiz eta azken horretan espedientean arrazoitu beharko den eta entzunaldiaren izapidea ez egiteko arrazoiak adierazi.

53. artikulua.— Zerga-zehapenak

1. Tributuen arloko zehapen-prozedura tributuen aplikaziokoetatik bereizita izapidetuko da.

2. Tributu-zehapenak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta hura garatzen duen Bizkaiko Lurralde Historikoko Zigor Erregelamenduan ezarritako irizpideen arabera soilik mailakatuko dira.

3. Zerga-zehapenak ezartzeko administrazio-ahala erabiltzeko preskripzio-epea lau urtekoa izango da, eta dagozkion arau-haustea egin ziren unetik hasiko da zenbatzen.

4. Zerga-zehapenak ezartzeko administrazio-ahala erabiltzeko preskripzio-epea honako hauetan etengo da:

- a) Zerga administrazioaren edozein ekintzagarik, baldin eta egintza hori zerga zehapena ezartzera bideratuta badago eta interesdunak horren berri formala badu.

Zergapekoaren zerga-egoera erregularizatzeko administrazio-ekintzek eten egingo dute erregularizatzeko horretatik erator daitezkeen tributu-zehapenak ezartzeko administrazio-ahala egikaritzeko preskripzio-epea.

- b) Edozein motatako erreklamazioak edo errekurtsioak aurkezteagatik, Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje batzordean gatazka bat aurkezteagatik, erruduntasun-testigantza zigor-arloko jurisdikziora igortzeagatik edo Fiskaltzan salaketa aurkezteagatik, baita prozedura horietan zehar zergapekoak formalki horren berri izanda egindako jarduketengatik ere.

Preskripzio-epea ez da etentzat joko etena edozein motatako errekurtsioak edo erreklamazioak aurkezteagatik gertatu bada, baldin eta osorik baietsi badira eta administrazio-egintzaren elementuak erabat deuseztatu badira.

5. Zerga-zehapenak ezartzeko administrazio-ahalaren egikaritza iraungitzeko epea sei urtekoa izango da, eta dagozkion arau-haustea egin ziren unetik hasiko da zenbatzen.

6. Zerga-zehapenak ezartzeko administrazio-ahalaren iraungitze-epea honako hauetan etengo da:

- a) Berraztertze errekurtsioa jartzeagatik, erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkezteagatik, peritu-tasazio kontraesankorra eskatzeagatik edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeagatik.
- b) Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje batzordean gatazka bat aurkezteagatik.
- c) Erruduntasun-testigantza zigor-arloko jurisdikziora igortzeagatik edo Fiskaltzari salaketa aurkezteagatik, baita abian den administrazio-prozedura geldiaraztea agintzen duen jurisdikzio-organo baten komunikazioa jasotzeagatik ere.

7. Preskripzioa eta iraungitzea ofizioz aplikatuko ditu zerga-administrazioak, interesatuak aipatu beharrik gabe.

8. Zerga-zehapenak honako arrazoi hauengatik azkentzen dira:

- a) Ordaintzea edo betetzea,
- b) Zerga-administrazioak ordainketa eskatzeko duen ahalaren gauzatzea preskribatzeagatik



- c) Konpentsazioz
 - d) Barkatzeagatik
 - e) Ordaintzera behartuta dauden guztien heriotzagatik.
9. Udaltzari dagokio zerga-zehapen irmoak modu graziagarrian barkatzea, eta ezarritako zehapen osoa edo haren zati bat barkatu ahal izango du.
10. Behar ez bezala sartutako zerga-zehapenak bidegabeko diru-sarreratzat hartuko dira ordenantza fiskal honen ondorioetarako.

XEDAPEN GEHIGARRIA**Lehen Xedapen Gehigarria**

Ordenantza honek alkateari ahalmena ematen dio udal-ordenantzetan edozein mota-tako aldaketak sartzeko, baldin eta aldaketa horiek nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondorio badira eta, ondorioz, baldintzak aldatzen badira edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzen badira. Hori berariaz jasoko da. Erabaki horien berri berehala emango zaio Osoko Bilkurari, berresteko, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren bigarren zenbakian adierazten den bezala.